

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 26/2021 Foru Dekretua, ekainaren 15ekoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriei udalerrri barruko garraioa finantzatzera bideratutako laguntza lerroaren oinarri arautzaile orokorrak, eta laguntza horien deialdia**

Laguntza hauen bidez, 20.000 biztanletik beherako udalerrietan erroldatuta dauden pertsonen udalerrri barruko garraioa hobetu nahi da. Dirulaguntzen onuradun izan daitezke udalerrri barruko garraiorako eskumena duten Arabako 20.000 biztanletik beherako udalerrriak.

Gure lurraldean, garraioa Foru Aldundiaren eta Arabako udalerrien arteko eskumen partekatua da.

Hori horrela izanik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 17.18) artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerrien eskumena da pertsonen garraio publikoaren hiri zerbitzuak antolatzea, planeatzea, programatzea, kudeatzea, diziplina ezartzea eta sustatzea, edozein garraio bideren bidez ere bakoitzaren udal mugartean egiten direnean. Prozedura horren helburua da, besteak beste, udalerrri barruko garraioa hobetzea, besteak beste, osasun zentroetara eta udalak sustatutako gizarte eta/edo kultura eragineko jarduerak egiten diren lekuetara joateko.

Bestalde, Lurralde Historikoen Legearen 10. artikulua, Autonomia Estatutuaren ildotik, historikoki garraioaren arloan zituen eskumenak garatzen jarraitzea aitortzen dio Arabako Lurralde Historikoari.

Horrela, alde batetik, foru garraio lineak daude, eta, bestetik, Arabako udalerriek kudeatzen dituztenak, bai herrigunearen barruan, bai udalerrri bereko herrigune desberdinen artean.

Foru Aldundiaren asmoa da Arabako herritarrei lurraldearen barruan garraio publikoan mugikortasuna errazteko helburu komuna lortzen laguntzea.

Kontuan izanik dirulaguntza hauek eskuratzeko oinarri argiak eta zehatzak ezarri behar direla objektibotasun, norgehiagoka eta publikotasun printzipioak berma daitezen, eta Arabako Lurralde Historikoen Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak xedatzen dutena aplikatuz, Arabako 20.000 biztanletik beherako udalerrientzako udalerrri barruko garraioa finantzatzeko dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak aurkezten dira, bai eta haien 2021eko urteko deialdia ere, Arabako Lurralde Historikoen Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 21.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzen duenak, 17.1 c) artikuluan xedatutakoarekin bat, horien presazko izapidetzeari dagokionez, egoera ezohikoa da eta ezin izan da aurretiaz aurreikusi, COVID-19aren pandemiaren ezohiko gorabeheren ondorioz. Gainera, dirulaguntzaren izaerak berak espedientea presaz izapidetzea dakar.

Oinarriak eta deialdia idazteko, kontuan hartu da martxoaren 22ko 3/2007 Legeak, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoak, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, ezarritako arau esparrua.

Halaber, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, oinarri arautzaileetan kontuan hartu da euskararen erabileraren faktorea

Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskaren Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Aginduzko txostenak aztertu dira. Horregatik guztiagatik, Lurralde Oreekaren Saileko diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea, Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriei udalbarri barruko garraioa finantzatzeko, Lurralde Oreekaren Sailearen norgehiagoka bidezko dirulaguntzen esparruan aplikagarri diren oinarri arau orokorrak.

Aipatutako oinarriak foru dekretu honen I. eranskin gisa jaso dira.

Bigarrena. Onestea, Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriei udalbarri barruko garraioa finantzatzeko, Lurralde Oreekaren Sailearen norgehiagoka bidezko dirulaguntzen deialdia, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko aurrekontuaren 60.000,00 euroko zenbatekoan.

Deialdia espedienteari lotuta dago eta foru dekretu honen 2. eranskina da.

Hirugarrena. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021erako aurrekontuaren kargura emango dira: "10.2.02 13.01 462.90.01 Udalbarri barruko garraioa" partida (10-48 lerroa).

Laugarrena. Espedientea izapidetzea presazkotzat jotzea.

Bosgarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 15a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Oreekaren foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Oreekaren zuzendaria*

**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**

## I. ERANSKINA

### **Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriei udalerr barruko garraioa finantzatzeko, Lurralde Orekaren Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez ematea arautuko duten oinarri arauak**

#### **1. Xedea**

Laguntza programa honen xedea da Arabako 20.000 biztanletik beherako udalerriek beren lurralde eremuaren barruan egin eta sustatzen duten garraio publikoa hobetu dadin bultzatzea.

#### **2. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

Diruz lagundu ahal izango dira Arabako udalerriek beren lurralde esparruaren barruan sustatzen dituzten eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 17.18) artikuluan esleitutako berezko eskumenaren ondorio diren ekintzak.

Hortaz, diruz lagungarriak izango dira aurreko apartatuan jasotako udalerriek beren lurraldeko bi herriguneren artean sustatzen dituzten garraio publikoko ekintzak.

Deialdian honako hauek zehaztu behar dira:

a. Zein xedapenetan jasotzen diren oinarri arautzaileak eta ALHAOren zein aletan argitaratu diren.

b. Zer aurrekontu kredituri egozten zaion dirulaguntza eta kreditu erabilgarriaren barruan deitutako dirulaguntzen gehieneko zenbateko osoa edo, halakorik ezean, dirulaguntzaren zenbateko zenbatetsia.

c. Dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua.

d. Dirulaguntza eskatzeko betekizunak, eta horiek egiaztatze modua.

e. Zein organok duten prozedura izapidetzeko eta ebazpena emateko eskumena.

f. Eskakerak aurkezteko epea eta modua.

g. Ebazteko eta jakinarazteko epea.

h. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta informazioa.

i. Behar den kasuetan, eskaerak zuzentzeko aukera dagoela, bat etorritik Dirulaguntzen Lege Orokorrak 27. artikuluan xedatzen duenarekin eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak 25. artikuluan ezartzen duenarekin.

j. Ebazpenak administrazio bideari amaiera ematen dion ala ez adieraztea.

k. Nola jakinarazi edo argitaratuko den, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duenaren arabera.

#### **3. Gastu hautagarriak eta baldintza gehigarriak**

1. Diruz lagundu ahal diren gastuak izango dira, soilik, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak eta behar-beharrezkoak direnak, eta BEZa, baldin eta berreskuratuz ezin bada.

2. Horrela, diruz lagundu daitezkeen aurrekontuan sartu ahal izango dira Arabako 20.000 biztanletik beherako udalerriek egiten dituzten gastuak udalerrri barruko garraio zerbitzua emateko, zuzenean edo zeharka, administrazio kontratu edo emakida baten bidez.

3. Inolaz ere ez dira diruz lagunduko kasuan kasuko udalaren egitura kostuak.

4. Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko zein erakunde pribatu batzuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten dirulaguntzekin, laguntzekin, sarrerekin eta baliabideekin.

5. Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza eta diru sarrera batzuekin batera, ezin da izan jardueraren kostua baino handiagoa.

6. Erakunde onuradunek diruz lagundutako jarduketak behar bezala eta erabat burutzeko behar diren izapide guztiak egin behar dituzte eta behar diren baimen guztiak lortu behar dituzte, zerbitzuak hasten direnetik behin betiko jaso arte.

7. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikulua arabera, honako hauek dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri aginteen jarduketa gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak: tratu berdina; aukera berdintasuna; dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea; genero ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea; ordezkaritza orekatua; eta koordinazioa eta lankidetzak.

Diruz lagundutako jarduera betetzeko administrazio kontratuak egiten badira, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 20. artikulua aplikatuko da. Ondorioz, kontratua betetzeko baldintzen artean esleipendunak izango duen betebeharrak bat jasoko da: prestazioa ematean, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatzea; hori guztiori, kontratuen legedia betetz eta betiere organo eskudunak finkatuta kontratazio mota edo ezaugarri horri halako neurria aplikatu behar zaiola.

Halaber, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, esleipendunak hizkuntza ofizial bien tratamendu eta erabilera egokiak bermatu beharko ditu, eskumena duen organoak uste badu kontratuaren xedeak hala eskatzen duela.

#### **4. Baliabide ekonomikoak**

Kasuan kasuko deialdiak zehaztuko du oinarri hauen bidez deitutako dirulaguntzak guztira zenbatekoak izango diren eta aurrekontuko zein partidari egotziko zaizkion.

#### **5. Erakunde onuradunak**

Dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira Arabako Lurraldeko Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerrriak, zerbitzua benetan ematen badute.

Zerbitzuaren hornidura udalarena izango da, eta ekoizpen publikoa edo pribatua izan daiteke.

Hornidura publikoa honela definitzen da: udalerrriak guztiz edo gehiengoz arautzea eta finantzatzea.

Ezin dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan adierazitako arau-hausteren bat dela-eta zehatu direnak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak jasotako kasuetan sartuta daudenak ere.

#### **6. Dirulaguntza emateko prozedura. Eskaerak balioesteko eta dirulaguntzak esleitzeko irizpideak. Dirulaguntzen zenbatekoa**

Dirulaguntzak nori eman norgehiagoka bidez ebatziko da. Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak eta, beharrezkoa denean, haien haztapena urte bakoitzeko deialdian jasoko dira.

Diruz lagundu daitekeen gehienezko ehunekoa jardueraren kostuaren arabera kalkulatu da, baina kanpoan geratuko dira udalaren egitura kostuak.

Erakunde onuradunek ebazpenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik 10 egun baliodunetan dirulaguntzari idatziz uko egiten ez badiote, ebazpenean ezarritakoa onartu dutela pentsatuko da.

Hornidura agortu ondoren dirulaguntzarik gabe geratzen diren eskaerak poltsa batean sartuko dira puntuazioaren arabera hurrenkeran. Eskatzaile hauek dirulaguntza jasoko dute hasieran banatutako funtsetako batzuk erabiltzen ez badira, onuradunen batek bere dirulaguntzari uko egin diolako. Ukoak bi hilabeteko epearen barruan egin beharko dira dirulaguntza eman zaiela jakinarazten denetik aurrera.

### **7. Onuradunak dirulaguntza jasotzerakoan lortu nahi zen helburua lortu izana justifikatzeko modua eta epea, eta ordainketa**

Dirulaguntza bat ordaindu baino lehen, haren xede den jarduera egin dela justifikatu behar da. Dirulaguntza ordaintzeko, deialdian zehaztuko den dokumentazioa aurkeztu behar da. Kasuan kasuko deialdian ezarriko da hura aurkezteko gehienezko epea.

Justifikatu beharreko aurrerakinak egiteko aukera ematen da, foru araudian ezarritakoarekin bat etorriz; horrela, erakunde onuradunek ordainketa bi fasetan justifikatu ahalko dute. Kasu horretan, lehenengo fase batean dirulaguntzak estaltzen ez duen jarduketaren kostuaren zatia justifikatuko dute, eta Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordainduko du justifikatu beharreko aurrerakin gisa. Erakunde onuradunak gainerakoaren ordainketaren ziurtagiria aurkeztu beharko du hilabeteko epean, dirulaguntzaren zenbatekoa jasotzen duenetik aurrera.

Justifikazioa honela egingo da:

a) Jarduerak egin izana justifikatzeko memoria; ibilbideen, maiztasunen, kobratutako tasen eta bestelakoen azalpena jaso beharko du. Era berean, sektoreko legeria aplikagarria betetzeari egingo zaio erreferentzia: kontratazioa, garraioa, berdintasuna, euskara...

b) Fakturen kopia eta haiek ordaindu izana egiaztatzen duten banku frogagirien kopia.

c) Udal idazkaritza-kontu hartzailetzaren ziurtagiria egindako bidaiei eta moduluetako gainerako aldagaiei buruz.

### **8. Babesa**

Dirulaguntza jaso duen jarduera dela-eta egiten diren argitalpenetan, liburuxketan edo bestelako publizitate modu guztietan Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orokaren Sailak emandako dirulaguntzaren berariazko aipamena egin behar da. Horrez gainera, generoaren ikuspegitik hizkuntza zuzen erabiltzen dela bermatuko da, eta informazioa emakume eta gizonei parekidesunez iristeko mezu eta kanal egokiak erabiliko dira. Halaber, diruz lagundutako jardueraren zabalkundea eta publizitatea, euskarria edozein dela ere (liburuxkak, kartelak, argitalpenak...), bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da.

### **9. Dirulaguntza itzultzea**

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako kasuetan, jasotako dirulaguntza itzuli beharko da.

Jaso ondoren itzuli beharreko dirulaguntzak zuzenbide publikoko sarrera izango dira, eta Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak II. tituluko I. kapituluaren ezarritakoaren arabera kobratuko dira.

Kasu hauek oinarrien ez-betetzeak izango dira:

a) Justifikatzeko obligazioa ez betetzea.

b) Dirulaguntza eskuratzea eskatutako baldintzak bete gabe.

c) Dirulaguntza helburu baterako eskatu eta horretarako ez erabiltzea.

d) Onuradunak ez betetzea dirulaguntza jasotzeagatik jarritako baldintzak.

e) Kontrol edo egiaztatze jarduerak oztopatzea edo galaraztea.

f) Jarduera burutzeko behar den baino diru gehiago jasotzea. Kasu horretan, jardueraren kostuaren gainetik eskuratutako soberakina itzuli beharko da, dagozkion berandutze interesak gehituta.

g) Xede bererako beste dirulaguntzaren bat jaso dela ez aitortzea.

#### **10. Egiaztatpena**

Lurralde Orekaren Saileko diputatuak deialdi honen garapenerako egokitzat jotzen diren ebazpenak emango ditu, dirulaguntza tramitatzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta ekintzak abiarazi ahal izango ditu erakunde onuradunek emandako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko.

Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute beraiek egindako jarduerekin loturik dauden eta Lurralde Orekaren Sailak eskatzen dizkien datu eta agiri guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste-lako erakundeek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

#### **11. Erantzukizunak**

Onuradunek beren gain hartuko dituzte jarduera edo programak gauzatzearen ondoriozko erantzukizun guztiak, eta indarrean den legediak jarduerak edo programak gauzatzeko galdegiten dituen baimen guztiak eskatu beharko dituzte.

#### **12. Aldaketak**

Onetsitako dirulaguntza berriro aztertuko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakiten bada. Horrelakoetan, diruz lagundutako gastuen eta diru sarreraren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da dirulaguntzaren behin betiko gehieneko zenbatekoa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat gertatzeak eta, kasu guztietan, edozein entitate publiko edo pribaturen gai bererako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzeak emakida ebazpena aldatzea ekarriko du, eta dirulaguntzaren zati bat itzultzea. Behin dirulaguntza onetsitakoan, hura esleitzeko arrazoï izan ziren egitatezko inguruabarrek hura aldatzea eragiten badute, Lurralde Orekaren Saileko diputatuak, dirulaguntzaren onuradunak arrazoïtuki proposatuta, bere esku izango du dirulaguntza aldatzea dagozkion foru aginduaren bidez.

#### **13. Interpretazioa**

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortzen diren zalantzak Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren Sailak ebatziko ditu.

#### **14. Errekurtsoak**

Oinarri hauek eta beren ondoriozko administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak arautzen dituen kasuetan eta bertan finkatzen den moduan.

#### **15. Aplikatu beharreko arautegia**

Oinarri hauetan xedatzen ez den edozertarako honako arau hauek aplikatuko dira: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten duena; Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua; indarrean

dagoen aurrekontu antolamenduari buruzko foru araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

### **16. Indarrean jartzea**

Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

## **II. ERANSKINA**

### **Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriei udalerririk barruko garraioa finantzatzeko, Lurralde Oreaken Sailak norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko 2021erako deialdia**

#### **1. Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Oreaken Sailak Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriei udalerririk bakoitzaren lurralde eremuan soilik egiten den barruko garraioa finantzatzeko aurrekontuko kredituen kargura emango dituen dirulaguntzak emateko bete beharreko betekizunak, betebeharrak eta prozedura ezartzea.

Beraz, diruz lagundu ahal izango dira Arabako udalerririk horiek beren lurraldeko hainbat guneren artean sustatzen eta kudeatzen dituzten garraio publikoko ekintzak, Euskadiko Toki Erakundeeri buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.18) artikuluan esleitutako eskumen propioetik eratorritzen direnak.

#### **2. Erakunde onuradunen betekizunak**

Deialdi honetako dirulaguntzen jasotzaile izan ahalko dira Arabako Lurraldeko Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerririk, udalerririk barruko garraioaren zerbitzua benetan ematen badute.

Zerbitzuaren hornidura udalarena izango da, eta ekoizpen publikoa edo pribatua izan daiteke.

Hornidura publikoa honela definitzen da: udalerririk guztiz edo gehiengoz arautzea eta finantzatzea.

Ondorioz, onuraduntzat joko dira dirulaguntza emateko moduko egoeran dauden udalerririk edo oinarri arautzaileetan eta deialdian ezartzen diren inguruabarretan daudenak, baldin eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, dirulaguntzenez, 11/2016 Foru Arauan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Aitzitik, ezin dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren IV. tituluaren adierazitako arau-hausteren bat dela-eta zehatu diren toki erakundeak, ez eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak jasotako kasuetan sartuta daudenak ere.

#### **3. Aurrekontuko zuzkidura eta dirulaguntzen zenbatekoa**

Deialdiko dirulaguntzen programarako gehienezko hornidura 60.000,00 eurokoa da, eta "10.2.02 13.01 462.90.01 Udalerririk barruko garraioa" izeneko partidaren kargura izango da, Arabako Foru Aldundiak 2021erako duen aurrekontutik.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eskatutako garraio linearen/lineen eta dirulaguntzaren esleipendunaren/esleipendunen arabera izango da, 5. klausulan ondoren zehaztuko diren dirulaguntzak emateko lehentasun ordenaren irizpideak betez.

Horrenbestez, udalerrri barruko garraio linea onuradun bakoitzari zenbateko aldakor bat emango zaio; honako modulu unitario hauek aplikatuz zehaztuko da zenbateko hori:

KONTZEPTUA	NEURRI UNITATEA	ZENBATEKOA (BEZA BARNE)
Bidaia <= 170	Bidaia hileko	9,68 €
Bidaia > 170	Bidaia hileko	4,84 €
Km-ak zerbitzuan	km	0,87 €
Bidaiariak	Bidaiaria	0,60 €

Garraio linea bakoitzeko gehienez 6.000,00 euroko dirulaguntza emango da urtean, eta udal bakoitzeko gehienez 10.000,00 eurokoa urtean.

#### 4. Eskaerak aurkezteko epea eta modua. Eskaerak aurkezteko modua eta epea

Deialdi honen gai diren eskaerak aurkezteko, hilabeteko epea egongo da, foru dekretu hau, oinarri arautzaile orokorrak eta deialdi hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Eskaerak hemen aurkeztu behar dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.
- Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako erregistroetako batean.

Edonola ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek, egoitza elektronikoen bidez (<https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>), telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzan dutenak.

Laguntza horiek jaso nahi dituzten udalek eskabidea aurkeztu beharko dute, horretarako ezarritako inprimaki normalizatuan. Inprimaki horrek udalerrri barruko garraio linearen ibilbidea edo eskatutako lineen ibilbideen zerrenda jasoko du, eta horietako bakoitzeko honako agiri hauek aurkeztu beharko dira nahitaez:

a) Linearen trazaduraren udalerrri barruko garraio zerbitzuaren ezaugarri nagusien konfigurazioaren aurreikuspenari buruzko azalpen memoria, ibilbidearen deskribapen xehatua, zerbitzua emateko modua, maiztasunak, kobratutako tasak... jasotzen dituenak. Memoriak aztertu beharko du eskatutako linearen bidez estali beharreko premia, bai eta egun dagoen garraio publikoaren estaldurarik eza ere.

b) Ibilbideari buruz aurreikusitako zenbakizko adierazleak; horien artean, hiru aldagai hauek aipatuko dira berariaz: aurreikusitako erabilizailerik kopurua, ibilbidea osatzen duten kilometro kopurua eta ibilbide linea berean konektatutako nukleo kopurua; izan ere, hiru adierazle horiek kontuan hartuko dira dirulaguntzak emateko jasotako eskaeren lehentasun ordena ezartzean.



c) Aurrekontu ekonomiko xehatua, dirulaguntzaren xede den jarduera gauzatzean aurreikus daitezkeen gastuen eta diru sarreraren kontzeptu guztiak banakatuta.

Nolanahi ere, Lurralde Orekaren Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

Baldin eta aurkeztutako eskabideek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Lurralde Orekaren Sailak interesdunei hamar eguneko epea emango die hutsa konpon dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten, eta adieraziko ezen, osterantzean, artxibatu egingo dutela eskaera, adituz atzera egin dutela beren eskaeran. Beharrezko agiriak osatzen diren unean, eskaera eginda eta erregistratuta dagoela ulertuko da, behin betiko eta ondorio guztietarako.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du deialdi honetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

### 5. Emateko irizpide objektiboak eta horien haztapena

Dirulaguntza horiek emateko modua norgehiagoka prozedura denez, eta diruz lagunduko diren garraio lineak hautatzeko, aurkeztutako eskaera guztiak ezin badira hornitu aurrekontuan izendatutakoarekin, honako lehentasun irizpide hauei jarraituko zaie:

Deialdi honetan aurkezten diren eta dirulaguntza jaso dezaketen ibilbideetako bakoitzak puntuazio balio bat lortuko du, eta, horri esker, deialdi honetan eskatutako ibilbideetako bakoitza ordenatu ahal izango da, lehentasun ordena bati jarraituz dirulaguntzak esleitzean. Hurrenkera hori irizpide hauetan oinarrituko da, eta irizpide horietan haztapena zehaztuko da:

– Puntuazioaren ehuneko 30, 2020ko urtarrilaren 1ean udalerrian zegoen biztanleria dentsitatearen alderantzizkoaren arabera, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) web orrian ([www.ine.es](http://www.ine.es)) argitaratutako datuei begiratuta. Biztanleria dentsitatea honela definitzen da: udal zuzenbideko biztanleria zati udalerriararen azalera kilometro koadrotan neurtuta.

- Biztanle dentsitate txikiena duen lineari eta gainerako linea ibilbideak proportzio zuzenean, puntuazio handiena emanez baloratuko da, honako formula hau aplikatuz:

$$P_i = 30 \times \frac{D(b)}{D(i)}$$

$P_i$  = Garraio linea bakoitzari esleitutako puntuak.

$D(i)$  = udalerriko populazio dentsitatea.

$D(b)$  = aurkeztutakoen artean populazio dentsitate txikiena.

– Puntuazioaren ehuneko 30 linearen trazadura horretarako aurreikusitako erabiltzaile kopuruaz izango da.

- Aurreikusitako erabiltzaile kopuru handiena duen lineari eta gainerako linea ibilbideak proportzio zuzenean, puntuazio handiena emanez baloratuko da, honako formula hau aplikatuz:

$$P_i = 30 \times \frac{US(i)}{US(b)}$$

$P_i$  = Garraio linea bakoitzari esleitutako puntuak.

$US(i)$  = garraio linea bakoitzean aurreikusitako erabiltzaile kopurua.

$US(b)$  = aurkeztutako lineen artean erabiltzaile kopuru handiena.

– Puntuazio zifraren ehuneko 20 bat etorriko da eskatutako ibilbidea osatzen duten kilometro kopuruarekin (udalaren biztanleguneen sakabanaketaren konfigurazioa neurtzeko adierazlea da hori).

- Aurreikusitako kilometro kopuru handiena duen lineari eta gainerako linea ibilbideak proportzio zuzenean, puntuazio handiena emanez baloratuko da, honako formula hau aplikatuz:

$$P_i = 20 \times \frac{Km(i)}{Km(b)}$$

$P_i$  = Garraio linea bakoitzari esleitutako puntuak.

$Km(i)$  = garraio linea bakoitzean aurreikusitako kilometro kopurua.

$Km(b)$  = aurkeztutako lineen artean kilometro kopuru handiena.

— Puntuazioaren ehuneko 20 ibilbide linea berean konektatutako biztanleguneen kopuruaren arabera izango da.

- Ibilbide linea berean konektatutako biztanleguneen kopuru handiena duen lineari eta gainerako linea ibilbideak proportzio zuzenean, puntuazio handiena emanez baloratuko da, honako formula hau aplikatuz:

$$P_i = 20 \times \frac{Nucl(i)}{Nucl(b)}$$

$P_i$  = Garraio linea bakoitzari esleitutako puntuak.

$Nucl(i)$  = garraio linea bakoitzean konektatutako biztanleguneen kopurua.

$Nucl(b)$  = aurkeztutako lineen artean konektatutako biztanlegune kopuru handiena.

## 6. Deialdiaren ebazpena

Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko eskumena duen organoa.

Batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Batzordearen osaera: Lurralde Orekaren zuzendaria burua izango da, Lurralde Orekaren Zuzendaritzari atxikitako teknikari bat izango da kidea, eta idazkari lanetan Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuko burua ariko da.

Balorazio Batzordeak aurkeztutako eskaerak aztertuko ditu oinarrietan eta deialdian ezarritako betekizunen arabera, eta txostena egingo du, non zehaztuko baitu betekizunak zenbate-raino bete diren, eta eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du, aurreko apartatuan ezarritako irizpide eta baremoen arabera.

Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpenean ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuak proposaturik, organo eskudunak bidezkoa den ebazpena emango du, sei hilabeteko epean gehienez, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde onuradunek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

Eskaera bakoitzari dagozkion izapideak bete eta gero, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari aurkeztuko zaizkio, eta hark ebatziko ditu dagokion Foru Aginduaren bidez, zeinak amaiera emango baitio administrazio bideari.

Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zein erakunde onuraduni eman zaien, eta espresuki adierazi gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

Ebazpen hori erakunde onuradunei jakinaraziko zaie urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ebazpenak administrazio bidea agortuko du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahalko da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztaillaren

13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Onuradunen batek uko egiten badiu –gehienez ere bi hilabeteko epean egin beharko da, emakida jakinarazten denetik aurrera–, dirulaguntza eman ahal izango zaie hurrengo garraio lineako ibilbideei, deialdi honetako 5. klausulan adierazitako lehentasun hurrenkerari jarraiki, betiere deialdiari azkenean esleitutako zenbateko ekonomikoaren mugarekin.

### **7. Xedea gauzatzeko eta obligazioa onartzeko epealdia**

Dirulaguntzaren xede den jarduera 2021eko ekitaldian zehar gauzatzen hasiko da, eta 2021eko abenduaren 31rako amaitu beharko da. Horregatik, zerbitzua ematetik eratorritako obligazio aitortuak 2021eko aurrekontu ekitaldiari egotziko zaizkio.

### **8. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea**

Ordainketak izendunak, erakunde onuradun bakoitzarentzakoak, izango dira.

Dirulaguntza guztiak ehuneko 50eko bi ordainketatan ordainduko dira, justifikatu beharreko aurrerakin gisa. Dirulaguntzaren zenbatekoaren lehen ehuneko 50 Lurralde Oreako Saileko diputatuak dirulaguntzen ebazpena eman ondoren gauzatuko da.

Dirulaguntzaren bi ordainketa partzialen justifikazioa justifikazio kontu erraztua izango da, eta dirulaguntza jasotzen duten udalek honako epemuga hauetan eta dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

Dirulaguntzaren ehuneko 50eko lehen ordainketa justifikatzeko eta dirulaguntzaren gainerako ehuneko 50a ordaintzeko, justifikazio kontu partziala 2021eko irailaren 30a baino lehen bidali beharko da, eta honako hauek jasoko ditu:

1) Dirulaguntzaren xede den jardueran egindako lehen justifikazioa aurkeztu arte egindako gastuen zerrenda sailkatua. Gastu bakoitzaren zerrenda horrek honako hauek jasoko ditu: gastuen agiriaren edo fakturaren zenbakia, hartzekoduna nor den, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data.

Gastuen zenbatekoak, dagozkien ordainagiriak barne, dirulaguntza osoa zehazteko kontuan hartutako gastuen ehuneko 50 izan behar du gutxienez.

2) Gastu partzialaren fakturak eta horien ordainagiriak, 1.000 eurotik gorako gastuetarako.

3) Lehenengo justifikazioa aurkeztu arte eskatu eta/edo jaso diren beste diru sarrera eta dirulaguntza batzuen xehetasuna, diruz lagundutako jarduera finantzatu badute, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Dirulaguntzaren ehuneko 50eko bigarren ordainketa justifikatzeko, azken justifikazio kontua 2022ko urtarrilaren 31n aurkeztuko da, beranduenez, eta dirulaguntzaren xede den zerbitzua emate osoari buruzkoa izango da, dokumentazio honekin:

1) Amaierako memoria zehatza, dirulaguntza jasotzen duen garraio linean (edo lineetan) udalerriek ematen duten udalerrri barruko garraio zerbitzua justifikatzeko jarduna azaltzen duena. Memoria horretan jaso beharko dira bai zerbitzua gauzatzeko egindako ekintza orokorrak, bai dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko zerbitzua emateari eragin dioten ekintza osagarriak. Memorian jasoko da udal idazkaritza-kontu hartzailetzaren ziurtagiria egindako bidaiei eta modulu-tako gainerako aldagaiei buruz.

Sektoreko legeria aplikagarria betetzen den aztertu beharko da.

Era berean, memoria horretan adierazi beharko da zein hizkuntzatan egin den hedapena edo publizitatea.

2) Laburpen taula bat, dirulaguntzaren onuradun den garraio lineako (edo lineetako) garraio zerbitzua gauzatzean izandako zenbakizko adierazle bidez lortutako emaitzak eta

dirulaguntzaren eskabidean egindako aurreikuspenekiko desbideratzeak kuantifikatzeko. Koadro horretan berariaz adieraziko dira, gutxienez, dirulaguntza emateko irizpidetzat hartu diren hiru aldagaiak (erabiltzaile kopurua, ibilbidea osatzen duten kilometro kopurua eta ibilbide linea berean konektatutako biztanlegune kopurua).

3) Diruz lagundutako jarduera egitean izandako gastu guztien zerrenda sailkatua. Gastu bakoitzaren zerrenda horrek honako hauek jasoko ditu: gastuen agiriaren edo fakturaren zenbakia, hartzekodunaren adierazpena, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data.

4) Gastu partzialaren fakturak eta horien ordainagiriak. Honako hauek aurkeztu beharko dira: fakturak edo jatorrizko agiri baliokideak edo fotokopia konpultsatuak eta 1.000 euro baino gehiagoko gastuen ordainketa ziurtagiriak.

5) Lehenengo justifikazioa aurkeztu arte eskatu eta/edo jaso diren beste diru sarrera eta dirulaguntza batzuen xehetasuna, diruz lagundutako jarduera finantzatu badute, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

6) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; baita haietatik eratorritako interesena ere.

Arabako Foru Aldundian kasuan kasuko diru sarrerarik ez badago, dirulaguntzaren xede den jarduerari aplikatu ez zaizkion dirulaguntzen balizko itzulketak udal bakoitzak Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean dituen partaidetzei lotuta geratuko dira.

#### **9. Dirulaguntza galtzea**

Onuradunek galdu egin ditzakete deialdi honetan emandako dirulaguntzak, aldez aurretik espedientea hasita, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritako kasuetan.

#### **10. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

#### **11. Azken klausula**

Oinarri orokorretan eta deialdi honetan xedatuta ez dagoen guztia Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko dute, baita aplikagarriak diren gainerako arauak ere.